

HIRIGINTZA, ETXEBIZITZA ETA INGURUMENA / Ingurumena

Iruñeko Udala orain dela urte askotatik hona ari da ekintza asko garatzen garapen iraunkorraren alde. 2011z geroztik, Garapen Iraunkorrerako Nafarroako Toki Entitateen Sareari atxikia dago (NELS sarea). Erakunde hori udalen arteko lankidetzarako tresna izateko asmoz sortu zen, zertarako eta baliabideak iraunkortasunez baliatzea sendotzeko eta toki garapena asmo horretara bideratzeko, aurrerabide ekonomikoa, gizarte-ongizatea eta ingurumena uztartuko dituen gizarte-oreka baten bila. Iraunkortasunaren alde egindako ekintzen esker onean, Udalak 2012an hainbat aitortza jaso zituen, hala nola finalista izatea Ingurumen Ministerioaren laguntzaz Fórum Ambiental Fundazioak ematen dituen Hiri Iraunkorra Sarietan, eta Zilarrezko Bioenergia saria biomasaren kategorian, Aquavox San Jorge zentroa eraikitzeagatik.

Udaleko Energia Agentzia

1998an sortu zenetik, Udaleko Energia Agentziak neurriak eta ekintzak sustatzen ditu energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko. Era berean, lanean dihardu hiria energia berriztagarrien sustapenean engeiatzeko. Era berean, herritarrari argibideak eta aholkuak ematen dizkio energia-eraginkortasunari eta aipatu energi berriztagarriei lotutako arloetan.

Energia berriztagarrien instalazioak

Udaleko Energia Agentzia hasieratik beretik ari da lanean, hirian energia berriztagarrien erabilera zabaltzeko, era horretako energiako instalazioak bultzatuz eta kontrolatuz. 2012an, Buztintxuri ikastetxe publikoko instalazio fotovoltaikoa jarri zen abian, eta 2011n lehiaketara ateratako instalazioei zegozkien obrak egin ziren bai Azpilagañako bai Arrotxapeko ikastetxeetan, ikastetxe fotovoltaikoen sarearen baitan.


Gainera, eta energia horien erabilera ezagutzera emate aldera, hainbat ikastetxek eta erakundek eskatu ondoren, energia berriztagarriak dituzten udal instalazioetara bisita gidatuak egin ziren, 2012an. Zehazki, Caparrosoren Errotara (energia geotermikoa

eta eguzki-energia termikoa) eta Sanduzelaiko Aquavox zentrora. Guztira, 103 lagun bertaratu ziren.

Eskola-programak

2001. urteaz geroztik ari da egiten *Energia aurkitu eta konta ezazu* Udalaren hezkuntza-programa, energia zentzuz erabiltzeko. Programak helburu du ikasleak sentsibilizatzea energiaren neurrigabeko kontsumoa eragiten duten arazoan aurrean eta, era berean, haiengan energia berriztagarrien aldeko balorazioa eragitea energia berriztaezinen aurrean eta, azkenik, norberarengan energia aurreztera bideratutako portaerak sustatzea. 2011-2012ko ikasturtean, 2.678 ikaslek parte hartu zuten (Lehen Hezkuntzako 2.340k eta Bigarren Hezkuntzako 338k), hau da, 2010/11ko ikasturtean baino % 77 gehiagok. 2011/2012ko ikasturtean, gainera, Iruñeko Udalak I. Argazki Lehiaketa antolatu zuen lantegietan aritutako Lehen Hezkuntzako ikasleentzat. Era berean, Haur Hezkuntzan 100 lantegi eman ziren (63 gaztelaniaz, eta 37, euskaraz), eta 20 ikastetxetako 2.297 ikaslek parte hartu zuten.

Eskola-programan parte hartu dutenen kopuru-bilakaera (2002-2012)



ikasleak hezteko eta sentsibilizatzeako ildo berari loturik, Energia Agentziak Eskola Eraginkorrek programa burutzen du ikastetxeetan auditoriak egiteko. Horrekin





bat, ikastetxe bakoitzari jakinarazten zaio zer-nolako energia-funtzionamendua duen eta aukera ematen zaio energiaren kudeaketan parte hartzeko, energia eta ur gutxiago kontsumitze aldera eta eraikinen konforta hobetze aldera. 2012an, hiriko 11 ikastetxe publikok eta itunduk parte hartu zuten: Patxi Larrainzar, Ermitagaña, José M^o Huarte, El Lago de Mendillorri-Mendigoiti, García Galdeano, Mendillorri-Elorri, Cardenal Ilundáin, Santa Teresa de Jesús, Calasanz, Hijas de Jesús eta Cardenal Larraona.

Auto elektrikoa

Nafarroako energia-kontsumoaren ia % 40 garraio-sektoreak eragiten du. Ibilgailuek, halaber, karbono monoxidoaren ia % 100 isurtzen dute, bai eta CO₂aren isurpenen erdia baino gehiago eta hirietako soinu-arazoen % 80 inguru eragin ere. Hori dela eta, eta gure inguruko herrialdeek markaturiko energia-eraginkortasunaren ildoari jarraiki, Iruñeak auto elektrikoetan pausatu du begirada hirian barrena mugitzeko. Iruñeko Udalak, 2012an, ibilgailu elektrikoak kargatzeko guneen sarea mantendu zuen. Hona hemen non dauden kokaturik: San Ignazio kalean, Orreaga etorbidearekiko bidegurutzean; Blas de la Serna kalean; Navas de Tolosan, Basotxo kalearekiko bidegurutzean; Ezkirotz kalean, Antso Azkarra etorbidearekiko bidegurutzean, eta Ermitagañaiko merkatuan, Arcadio Maria Larraona kalearen ondoan.

2012ko amaieran, guztira, 47 ibilgailu elektririk ziharduten Iruñean; beraz, karga-sarearen erabiltzaile kopuruak % 81 egin zuen gora, aurreko urtearen aldean.

2012an, era berean, hitzarmen bat sinatu zen Iruñeko Udalaren, Iberdrolaren eta CarSharing Navarra-ren artean eta, horren ondorioz, ekainean ibilgailu elektrikoak alokatzeko lehen bi baseak zabaldu ziren. Haietako bakoitzean, herritarrek *think city* ibilgailu bi aurkituko dituzte. Abenduan, bi base berri ezartzeko lanak hasi ziren. Zerbitzu hori erabili ahal izateko, beharrezkoa da Car Sharing zerbitzua gaitua duen

herritar txartel bat izatea. Erabiltzaileak, izan ere, haren bitartez alta hartu eta ibilgailu elektriko bat erreserba dezake, ibilgailua zer ordutan hartu eta utziko duen adierazita. 2012ko bukaeran, 261 erreserba egin ziren eta, guztira, 95 herritar daude erabiltzaile gisa erregistraturik.

Informazioa eta aholkularitza

Energia Agentziak, besteak beste, eginkizun du herritarra energia-kontsumoari buruzko gaietan informatu, aholkatu eta sentsibilizatzea. 2012an, Agentziak 87 kontsultari erantzun zien bere aholkularitza espezializatuaren bidez; haietatik, % 52 enpresek egindakoak izan ziren, eta gainerako % 48, partikularrek egindakoak. Gaiei dagokienez, kontsulten % 21 eguzki-energiari buruzkoak izan ziren; % 23, eraikuntzari, energia eraginkortasunez erabiltzeari eta aurrezteari buruzkoak; % 10, ibilgailu elektrikoari buruzkoak; eta % 46, energia berriztagarriekin lotutako beste gai batzuei buruzkoak. Webguneak, 2012an, 34.539 bisita jaso zituen; hau da, 2011n baino % 40 gehiago.

Agenda 21

Agenda 21 Nazio Batuen ekintza-programa bat da, XXI. mendean garapen iraunkorra lortzeko, betiere ondokoa joz garapen iraunkortzat: *egungo belaunaldiaren beharrak asetzen dituen garapena, baina etorkizuneko belaunaldiak beren beharrei erantzuteko ahalmena kolokan jarri gabe*. Ildo horrekin bat, Iruñeko Udalak Energia Iraunkorraren II. Ekintza Plana onetsi zuen 2011. urtean, hiriaren garapen-eredu iraunkorrako bat lortzeko asmoz, hala ingurumenari begira nola gizarteari eta ekonomiari begira. 2012an zehar, Udalak jarraipena eman zion Ekintza Plan horri, eta zehazki 176 ekintza egin zituen, 6 estrategiatan, 30 programatan eta 91 lan-ildotan antolatuta. Haiei 7. estrategia osatzen duten beste 20 entitate eta erakunderen 40 ekintza gehitu behar zaizkie. Estrategietako programek ondoko gaiekin dute zerikusia: energia berriztagarrien instalazioak, airearen kalitatea, ura aurrezteak, osasuna eta kirola sustatzea, erakundeen lankidetzak, immigrazioa, turismoa

sustatzea, prestakuntza, enplegua eta emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna.

Ilido horrekin bat, 2009an, Iruñeko Udalak Alkateen Ituna sinatu zuen. Hori Europako Batzordearen ekimena da, tokiko gobernuei zuzendutakoa, eta, haren bidez, konpromisoa hartzen dute CO₂-aren isurpenak % 20 murrizteko eta energia kontsumo osoaren % 20 iturri berriztagarrietatik lortzeko. 2011n, Iruñeko Energia Iraunkorrerako Plana onetsi zen. Planak bi zati desberdin ditu: batetik, epe luzerako neurriak, isurpenak 2020rako murrizteko helburua lortzeko, eta bestetik, epe laburreko neurriak, datozen bizpahiru urteetan isurpenak murrizte aldera gauzatzekoak. Agirian, guztira, epe laburreko 46 neurri daude bilduta, 42 milioi €-ko inbertsioa eraginen dutenak. Haien bidez, 42.000 tCO₂eq-tan baino gehiago murriztuko dira isurpenak urtean. 2012an, agiria berrikusteko eta haren jarraipena egiteko lanak hasi ziren. Egiaztatu zenarekin bat, epe laburreko 46 neurrietatik 43 (% 93) jadanik gauzatu dira edo garatzen ari dira.

Engage

Ilido horren beraren baitan, Iruñeak *Konpromisoa/Engage Proiektuan* parte hartzen jarraitu zuen 2012n, zeina Europako 12 hiri eta bertako biztanleak lotzen dituen ekintza sorta bat baita, helburu bakar bat hartuta: klima-aldaketaren aurka lan egitea, isurpenak murriztuz eta energia aurreztuz. 2011n, ehunka iruindarrek eta erakunde ugari kanpainarekin bat egin bazuten, 2012an bi ekitaldi antolatu ziren: ekainean karpa bat ezarri zen Karlos III.aren etorbidean, atxikipen berriak eskatzeko. 80 konpromiso berri lortu ziren. Azaroan, berriz, proiektua ofizialki bukatu zen, Udaletxe plazan egindako ekitaldi baten bidez, zeinean atxikitako erakundeetako ordezkariak irudi bat osatu baitzuten zenbat tona CO₂ ekidin ziren adierazteko: 5.500.

Hona hemen Konpromisoa Kanpainaren azken emaitzak: 1.112 lagun kartelen batean atera ziren; 448 konpromiso beste hainbat karteletan gauzatu ziren

(377, herritarren konpromisoak; 48, erakunde publiko eta pribatuen konpromisoak, eta 23, ordezkari politiko eta enplegatu publikoenak); 40 erakunde publiko eta pribatu atxiki ziren, eta 12 pertsona ospetsu konprometitu ziren. Herritarren 52, erakunde pribatuen 5 eta udalerakundeen 10 konpromiso ebaluatetik ondorioztatu da lehenek batez beste isurpenen % 9 aurreztu dutela urte batean (30 tCO₂eq, guztien artean); bigarrenek 522 tCO₂eq, guztien artean; eta Udalak, 3.005 tCO₂eq.

Mugikortasun Astea

Udalak, beste urte batez ere, bat egin zuen Mugikortasun Astea Europako deialdiarekin. Horren baitan, irailean Autorik Gabeko Eguna ospatu zen, ondoko lelo honekin: *Parte hartu zure hiriko Mugikortasun Planetan: har ezazu norabide zuzena!* Guztira, 14 jarduera antolatu ziren, besteak beste ibilaldiak oinez, patinetan eta bizikletaz, bai eta solasaldiak, lantegiak, erakusketak eta eraginkortasunez gidatzen ikasteko ikastaroak ere. 2012an lehen aldiz antolatutako ekitaldien artean, Carsharing zerbitzua sustatzeko jarduera da azpimarratzekoa, bai eta Polo Parkea Fundazioarekin egindako lankidetzaren inguruan. Parkean, bestalde, bizikleta-martxa bukatu zen; 2011n, 150 parte-hartzaile izan ziren, eta 2012an 1.000ra iritsi zen.

Nbizi, bizieskola eta Autoan elkarrekin

Bizikleta garraiobide gisa sustatze aldera, Udalak *Nbizi* alokairu-zerbitzua bultzatzen jarraitu zuen. lazkoan, 324 erabiltzaile berri izan ziren. Sistemak, hortaz, bere osoan jada 3.882 erabiltzaile ditu; 2011n baino % 9 gehiago. Zerbitzuak ehun bizikleta eta bost geltoki ditu erabilgarri. Geltokiak, zehazki, Zezen Plazan (Arrieta kalea), Gaztelugibelen (Armada etorbidearen eta Pio XII.aren arteko izkinan), Arrotxapeko Aneliet pasealekuan, Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasgelategian, eta Nafarroako Unibertsitatean daude, azken hori CIMA ondoan.





Guztira, 12.236 mailegu egin ziren; eguneroko erabilerak, batez beste, 35 izan ziren. Beraz, 2012a bigarren urterik onena izan zen, zerbitzua erabiltzeari dagokionean. Mailegurik gehien maiatzean (1.594) eta irailean (1.561) izan ziren. Maiatzean, batez beste, 51 erabilera izan ziren egunero. Erabiltzaile desberdin gehien dituen hilabetea, berriz, abuztua izan zen, 405 izan baitziren, eta ondotik, iraila, 390ekin. Aurreko urteetan bezala, geltokirik erabilienak Zezen Plazakoa eta Aneliet pasealekukoa izan ziren, eta gutxien erabilitakoa, berriz, Unibertsitate Publikokoa. Sistema abiarazi zenez geroztik, 1.465 txartel baino gehiago eskatu dira turistentzat, aldi baterako akreditatzeko.

Iruñeko Udala, gainera, lankidetzan aritzen da Garraiobide Osasungarrien Elkartearekin *Bizieskola* ikastaroa antolatzeko. Hirian bizikletaz nola ibili behar den azaltzen duen ikastaroa da eta aldian behin egiten da 2010etik hona. Horrela, hilean ikastaro bat ematen da, 6 saioz osaturik: saio teoriko bat eta 5 saio praktikoa. Saio praktikotarako, Nbizi zerbitzuko bizikletak erabiltzen dira. 2012an, 6 ikastaro antolatu ziren. Guztira, 80 lagun aritu ziren; batez beste, 13 lagun ikastaroko. 2010etik hona, guztira, 231 lagun aritu dira.

Mugikortasun iraunkorra sustatzeko beste udal-zerbitzu bat *Autoan elkarrekin* da. Horrela, udalaren webgunearen bitartez, badago www.compartir.org webera iristerik, non erabiltzaileak erregistratzen ahal diren, bidaiak ibilgailu pribatu batean elkarrekin egiteko

pertsonak bilatze aldera. Horrela, gastuak partekatzeaz gain, pertsona horien ekimena lagungarria da isurpen kutsagarriak eta zirkulazioa murrizteko. Zerbitzua 2005ean abiarazi zenetik, guztira 1.447 erabiltzaile izan dira; haietariko 194k 2012an hartu zuten alta, hau da, 2011n baino % 64 gehiagok. Webguneak, batez beste, 740 bisita jaso zituen hileko eta, guztira, 179 bidaiatarako hartu zuten alta, autoa elkarrekin erabiltzeko. 2012an, aldaketa bat egin zen Iruñeko jatorri eta helmuga gune nagusietan, Volkswagen lantegiaren sarbide gune batzuk eranstea, enpresak berak eskaturik.

Ingurumen Heziketarako Museoa

Iruñeko Udalak 2003an inauguratu zuen Ingurumen Heziketarako Museoak ondoko helburuekin: Natur baliabideak eta gizakion jardueren eta baliabide horien arteko elkarrenergina ezagutzera eman eta baloratzea, bai eta iraunkortasunaren printzipioetan oinarritutako gizartearen eredu berri bat eraikitzen laguntzea ere, ingurumen-heziketa etengabea baliatuta. Museoa San Pedro Monasterio zaharrean kokaturik dago eta ingurumenari buruzko prestakuntza- eta dibulgazio-jarduerak, argibide- eta aholku-jarduerak nahiz dokumentazio-zerbitzua eskaintzen dizkie ikasleei eta hezitzaileei.

2012an, museoa kudeatzeko kontratazioa lehiaketara ateratzeko deialdiaren karira, ordutegian eta egutegian aldaketak egin ziren. Horrela, 2012ko ekainaren 30az geroztik, uztailean itxita dago, bai eta larunbatero

URTEA	BISITARI KOPURUA			GUZTIRA
	Partikularrak	Ikasleak	Beste talde batzuk	
2003	1.563	329	503	2.395
2004	998	1.329	662	2.989
2005	1.055	3.004	1.984	6.043
2006	669	2.417	1.796	4.882
2007	726	2.055	2.453	5.234
2008	620	3.920	2.602	7.142
2009	752	3.610	3.116	7.478
2010	637	4.367	3.383	8.387
2011	694	4.371	2.880	7.945
2012	1.037	4.104	4.288	9.429
GUZTIRA	8.751	29.506	23.667	61.924

ere, egun horietan bisitari gutxi izaten delakoz. Ordutegiari dagokionez, astelehenetik ostiralera bitarte dago zabalik, 10:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara (arratsaldeetan, ordu erdi gutxiago). Hala ere, bisitek % 19 egin zuten gora bigarren hiruhileko horretan, 2011ko hilabete berberen aldean. Udal-ekipamendu honen kudeaketa-kostea % 73 murriztu da erabiltzaile bakoitzeko, hainbat arrazoi direla medio: bisitari gehiago izatea, ordutegia murriztea eta enpresa esleipendunaren eskaintza murriztea.


2012 osoan, 9.429 lagun joan ziren Ingurumen Heziketarako Museora. Beraz, inauguratu zenetik, guztira, 61.924 bisitari izan ditu. 2011. urtean, 7.945 bisitari izan ziren. 2012ko igoera, beraz, % 19 izan zen, eta bisitari gehien jaso dituen urtea izan da, museoa ireki zenetik. Haietarik, % 44 (4.104) ikasle taldeak izan ziren; % 45 (4.288), berriz, bestelako taldeak (bisita teknikoak eta eskoletatik ez datozen beste talde antolatu batzuk); eta % 11 (1.037), azkenik, partikularrak. Azken kategoria horretan sarturik daude erakusketa iraunkorra bisitatzen dituzten pertsonak, 2012an 2011n baino % 49 gehiago izan zirenak.

Ingurumen Heziketarako Museoaren jarduketarako nagusietako bat Iraunkortasunerako Heziketa da, 2012-2013 ikasturtean goitik behera berri dena. Horrela, irakasleendako prestakuntza jarri da abian, berariazko jarduerak egin dira desgaitasuna dutenentzat eta bisita ingelesez ere egiteko aukera eskaini da.

Programaren barruan, ikasleen bisitak dira nabarmentzekoak. Eskaintza hezkuntza-maila guztietako ikasleei zuzendua dago, hots, Haur Hezkuntzatik Batxilergoraino eta Lanbide Heziketaraino. Guztira, 22 jarduera eskaintzen dira. 2012an, eskola-kanpainan 4.104 ikaslek parte hartu zuten, hau da, 2011n baino zertxobait gutxiago, urte hartan 4.371 izan baitziren. Programa horri dagokionez, 2012a bisitarik gehien izan zituen hirugarren urtea izan zen urte natural batean. Museoak, gainera, haurrendako lantegiak eskaintzen

ditu oporraldietan. 2012an, 30 jarduera eskaini ziren, Pazko astean, uda partean eta Eguberrietan, eta guztira, 925 lagunek parte hartu zuten, hau da, 2011n baino % 40 gehiagok, urte hartan 659 parte-hartzaile izan baitziren.

Iraunkortasunaren Ikasgelan urtez urte izandako parte-hartzaile kopuruaren bilakaera



Helduendako programazio egonkorra Iraunkortasunaren Ikasgelaren ekimenetan bilduta dago. 2012ko urrian, hezkuntza-programa horren egitura aldatu zen eta, asteazkenero, jarduera bat antolatu zen. Gaiak ere egituratu ziren (hilaren lehenbizikoa, gai librea; bigarrena, nekazaritza ekologikoa; hirugarrena, biodibertsitatea; eta laugarrena, ekonomia alternatiboa).

2012an 56 jarduera antolatu ziren, hau da, 2011n baino 3 gehiago, eta guztira, 2.068 lagunek parte hartu zuten, aurreko urtean baino % 33 gehiagok. Horrek agerian jartzen du programa finkatu izana, eta herritarrek huraxe onartu izana. 2012an, batez beste, 37 lagun bertaratu ziren jarduera bakoitzera; 2011n, berriz, 29. Iraunkortasunaren Ikasgela programaren erreformari dagokionean, lehen seihilekoan, aurreko sistemarekin, 39 jarduera egin ziren eta, batez beste, 33 lagun bertaratu ziren saio bakoitzera. Aldiz, udazkeneko programazioa egitura berriarekin hasi





zenez geroztik, 17 jarduera egin ziren eta, batez beste, parte-hartzaileak 46 izan ziren saioko; hau da, % 39 gehiago.

2012an programaturiko zikloak eta jarduerak

- TeleNatura dokumentalak (urtarrila)
- Nekazaritza ekologikoa (otsaila)
- Energia iraunkorra (martxoa)
- Konpainiako animaliak (apirila)
- Aste Ekologikoa (apirila)
- Ezkaba iraunkortasunez kudeatzea (apiril eta maiatza)
- Ingurumen ibilbideak Iruñean barna (maiatza)
- Ingurumenaren Nazioarteko Eguna (ekaina)
- Konposta egiteari buruzko mintegia (ekaina)
- Mugikortasun Astea (iraila)
- Nola egin zen Pura Vida dokumentala (urria)
- Ugaztunei buruzko bi libururen aurkezpena (azaroa)
- Zientzia astea (azaroa)
- Jarduera tematikoak (azaroa eta abendua)

2012an, lehen aldiz, irakasleak prestatzeko programa bat abiarazi zen eta hiru gai landu ziren: eskola-baratzeak, ikasgela iraunkorra eta bizi-bus bat ezartzea. Bost irakaslek hiri-baratzeei buruzko ikastaro batean parte hartu zuten.

2006az geroztik, Ingurumen Heziketarako Museoak lanabes ahaltsu bat du eskura bere jarduera hedatzeko: www.museoambientalpamplona.com webgunea. 2010ean berritu zuten, jardueri buruzko argibidea errazago eskuratzeko. Lazkoan, webguneak, guztira, 22.910 bisita jaso zituen; 2011n baino % 46 gehiago, eta 2010ean baino ia halako bi gehiago. 2011tik hona, museoak bere profila du Facebooken, zer eskaintzen duen jakinarazteko eta, 2012ko abuztuan, Twitterren profil bat sortu zen helburu berarekin.

Hiriko bioaniztasuna

2012an, bi hirigintza-proiekturen ingurumen-zaintzan parte hartu zen: Trinitarios parkea eta Arantzadiko parkea. Lehenbizikoan, ingurumen-zaintzako lan

hauek egin ziren: Argaren ibaiertza ukitzen duten jarduketan gainera gainbegiratze orokorra eta kiroptero-populazioen(saguzarren) azterlanaren koordinazioa egitea. Gainera, Cuatro Vientos zubiaren aldeari dagokionez, bisoi europarra bertan bizi ote den eta ugaltu ote daitekeen jakiteko azterlan bat egin zen. Arantzadin, berriz, txosten bat egin zen bioaniztasuna zaintzeko aurreproiektuan sarturiko aldaketan gainean eta, era berean, mozketak eta bazterrak sasiz garbitzeko lanak gainbegiratu ziren, bioaniztasuna zaintzearen ikuspegitik.

2012an, bestalde, San Kristobal eta Ezkaba mendietako basoa hobetzeko lanak hasi ziren; bertan Udalaren hiru lurzati daude, eta hiruretan ere larizio pinua dago landatua (Pinuz nigra). Helburu nagusia da, arian-arian, egungo landaretzaren ordeztasun landaretza autoktonoa zabaltzea (ametz ilaraundunaren seriea eta artearen colino-montana seriea), eremuari berariaz dagokion bioaniztasuna kontserbatzea sustatze aldera. Lan horietan Basogintzako Lantegi Eskolako ikasleak ari dira, eta finantziarioa Nafarroako Enplegu Zerbitzutik eta Europako Gizarte Funtsetik etorri da. Landaretza eta fauna autoktonoaren gainera eragina ahalik eta gehien guthitze aldera, mandoak erabili ziren zuhaitz moztuak ateratzeko, hau da, basoa ustiatzeko molde tradizionala. Handik ateratako zura biomasarako eta paper-orea egiteko erabili zen.

Osasuna prebenitzea

Elikagaien ikuskaritza

Elikagaien Ikuskaritzak Iruñeko biztanleek kontsumitzen dituzten elikagaien osasun-kalitatea zaintzea du eginkizun eta, era berean, elikagaiak prestatzeko, biltegiratzeko eta saltzeko lokalen egokitasuna ziurtatzea, bai eta elikagaiak elaboratu eta manipulatzearen prozesuena eta horretan ari diren langileena ere. 2012ko urtarilaren 1ean, 1.119 ostalaritza-establezimendu zeuden Iruñean erroldatuak, bai eta 1.027 elikadura-establezimendu eta elikagaiekin lotutako bestelako 75 establezimendu edo jarduera egonkor ere. Lazkoan, 3.857

Zehapen-espedienteak, 2012an, ostalaritzan eta elikadura-establezimenduetan, zioen arabera sailkatuta

sektoreak	ostalaritza	elikadura	biak
Espediente kopurua	41	45	86
Zehapen-arrazoiak*			
Hutsuneak instalazioetan eta tresnetan	24	13	37
Hutsuneak elikagaien manipulazioan eta kontserbazioan	20	35	55
Hutsuneak langile manipulatuzaileengan	14	1	15
Zehapen-arrazoiak, guztira	58	49	107

* Zehapen-espediente batzuk zehapen-arrazoi batek baino gehiagok eragindakoak izan daitezke

ikuskaritza-bisita egin ziren establezimendu horietara. Horren ondorioz, 525 espediente abiarazi, 86 zehapen jarri eta 381 errekerimendu egin ziren. Bisita horietan Sanferminetan egindakoak sarturik daude. Egun horietan, izan ere, ikuskaritza-zerbitzuek zaintza berezia antolatzen dute; hau da, osasun kontrolerako eta laginak hartzeko bisitak egiten dira establezimendu ez iraunkorretara eta, era berean, jaia egiten den lekuak ikuskatzen dira. Guztira, osasun-kontrolerako 158 esku-hartze egin ziren eta, haietarik 65etan, gabeziak atzeman ziren.

Zoonosia

Zoonosi Unitatea hiriko etxe-animaliei zein horien parekoei lotutako osasun-aferez arduratzen da, eta Iruñeko Animaliak Hartzeko Zentroan (AHZ) kokaturik dago. Era berean, Taconerako minizooa kudeatzeaz arduratzen da, 2009tik hona.

2012an, 413 zakur eta katu sartu ziren Zentroan (2011n baino 73 gutxiago); gehienak eremu publikoan jasotakoak (311) edo jabeek emandakoak (85). Bereziki saiatu da sustatzen berriz ere Zentroan hartutako animalien adopzioa. Hartara, hainbat neurri hartu ziren eta, horren ondorioz, aurreko urteen aldean, adopzioek gora jo zuten. Horrela, 2012an, 139 zakur eta 51 katu adoptatu ziren.

AHZn adoptatutako animaliak 2007tik 2012ra

urtea	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Zakurrak	40	102	102	85	127	139
Katuak	15	29	37	36	74	51
Biak	55	131	139	121	201	190

Animalien adopzioak bere atala du udalaren webgunean, hainbat gauza azaltzeko: zer egin behar den animaliak adoptatzeko, kontuan hartu beharreko gomendioak eta Zentroan adopzioan hartzeko dauden animalien argazkiak. Atal horrek, hain zuzen ere, jaso ditu bisita gehien eta baloraziorik hoberenetakoak.

Identifikaziorako eta amorraren kontrako txertaketa-kampaina maiatzaren 28tik ekainaren 2ra bitarte egin zen. Guztira, 125 txerto jarri eta beste hainbat mikrotxip ezarri ziren. Horrez gain, oroitzapenezko beste 206 txerto-dosi jarri ziren. Bestalde, 59 lizentzia eman ziren arriskutsuak gerta daitezkeen animaliak edukitzeko.

Animaliek eragindako arazoei dagokienez, 2012an bere horretan iraun zuen salaketa-espedienteen kopuruak, aurreko urteen aldean, 135 zehapen izan baitziren (128, aurreko urtean). Haietatik 46 ezarri ziren, arriskutsuak gerta daitezkeen animaliak edukitzeari buruzko araudia ez betetzeagatik; 41, zakurrak lotu gabe eramateagatik, eta 24, gorozkiak ez biltzeagatik.

Bestalde, 24 zakur-hozkadatan esku-hartu zen; 2011n adina kasutan, zehazki. Era berean, zerbitzuak 519 uso harrapatu zituen; guztira, 17.853 uso harrapatu dira 1997tik hona. 2012an, kezka berezi bat zabaldu zen usoek eragindako arazoengatik; hiriko hiru ikastetxe publikotan, batez ere.

Taconerako minizooari dagokionez, 2011n sarturiko hamar oreinkume berriei saneamendu-tratamendua






egin zitzaien 2012an, bai eta parasitoak hiltzeko tratamendua ere. Gainera, Gizarte Enpleguak eta Soldadurako Lantegi Eskolak lagundurik, minizooaren dotazioak hobetzen jarraitu zen: horrela bi ate txiki egokitu eta jarri ziren, hegaztiak erabil zitzen; urmaeletan ataka berriak paratu ziren eta segurtasun-elementuak San Roke errabelinaren sarbidean.

Ingurumen-ingeniaritza

Ingurumen Ingeniaritzako Zerbitzua ingurumena kutsatzen duten isurpenak kontrolatzeaz arduratzen da (zaratez, usainez, keez eta gasez) eta, era berean, ofizioz ikuskatzen ditu eragozpenak sor ditzaketen lokaletako emisio eta immisio akustikoak eta ke-isurpenak: ostalaritzakoak, saltoki handietakoak, industriakoak, etab. Azken urteotan, behera egin dute kutsadura atmosferikoko salaketek, ofiziozko ikuskapen horiek nabarmen gora jo dutelako.



Zerbitzuak, halaber, Udaltzaingoak zarategatik eta keak eta usainek eragindako kutsaduragatik jarritako salaketak izapidetzen ditu eta herritarrek egindako salaketei, kontsultei eta informazio-eskariei harrera egiten die. 2012an, guztira, 152 zehapen jarri ziren. 139, zarategatik, eta 13, ke eta usainengatik.

Urtea	2008	2009	2010	2011	2012
Ostalaritza					
Ikuskapenak	678	677	721	658	983
Bestelako ikuskapenak (merkataritza, industria, etxebizitzak)	217	150	188	140	69
Guztira	895	827	909	798	1052


Ingurumen-osasuna

Iruñeko Udalak, Ingurumen Osasunerako zerbitzuaren bidez, hau guztia begiratzen du: giza kontsumorako hornidura-sareko ura, ibaietako ura, erabilera kolektiborako igerilekuak, hauek eskolak, estetika- eta norberaren garbitasun-jarduerak egiten diren lokalak eta merkataritza-lokal berriak edo titulartasuna aldatu dutenak. Zerbitzuak ofizioz nahiz herritarrek eskaturik dihardu, baina 2012an ia ikuskapen guztiak ofizioz egin ziren (1.728, eta herritarrek eskaturik, aldiz, 68).


1.560 ur-lagin hartu ziren, analisi kimikoa eta bakteriologikoa egiteko, erroldaturik dauden 748 kontsumo-txorrotetan. Txorrotak honakoetan daude kokaturik: iturri publikoetan, derrigorrezko irakaskuntzako ikastetxeetako patio, jantoki eta sukaldeetan, Udalaren haur eskoletako ikasgela eta sukaldeetan, udalkiroldegietan, Civiox zentroetan eta udalaren lan-zentroetan. Horrez gain, 25 lagin hartu ziren Arga, Elortz eta Sadar ibaien sarreran eta irteeran. Erabilera kolektiboko igerilekuei dagokienez, 265 ur-lagin hartu ziren 29 igerileku estalitan eta estali gabeko 55 igerilekutan. Halaber, aipatu igerilekuetan eta haien instalazio osagarrietan, 264 ikuskapen egin ziren.

2012an, 53 ikuskapen egin zitzaizkien erroldaturik dauden 46 haurtzaingegiei. Horrez gain, estetika- eta norberaren garbitasunerako jarduerak egiten diren 475 merkataritza-lokal ikuskatu ziren. Guztira, 604 ikuskapen egin ziren, eta 27 espediente eragin zituzten. Ikuskapen gehienak merkataritza-lokaletan izan ziren, dela irekiera-lizentzia berrikoetan, dela titulartasuna aldatu dutenetan; zehazki, 697 ikuskapen egin ziren 432 lokaletan, eta haietatik 91k gabeziaren bat zuten, gehienbat aireztatzearekin edo osasun-desbideraketa funtzionalekin lotutakoak.

2012an egindako ikuskapenak eta laginak



■ Kontsumoko ura ■ Igerilekuak ■ Ibaiak



■ Estetika-zentroak ■ Igerilekuak ■ Haureskolak
■ Lokalak ■ Espedienteen segimendua



MEMORIA 2012
57

Udal Laborategia

Udal Laborategia arduratzen da elikagaiak eta urak osasunaren aldetik kontrolatzeko beharrezkoak diren analisi kimikoak eta mikrobiologikoak egiteaz, Elikagaien eta Osasun Ingurumenaren Ikuskaritzak hartutako laginak abiapuntu hartuta. Elikagaiak kontrolatzeari dagokionez, elikadura- eta ostalaritza-establezimenduetan zein eskola-jantokietan eta makina saltzaileetan egiaztatzen da elikagaien egoera. Elikagaiak analizatzeko jarduera honetan, guztira 543 lagin hartu ziren eta 2.156 saiakuntza kimiko eta 646 saiakuntza mikrobiologiko egin ziren.

Laborategiak, halaber, erantzun egiten die herritarrek ingurumenaz eta elikagaiez plazarazten dituzten kontsultei. 2012an, 18 kontsultari erantzun zitzaion;

Lokal-ikuskatuen bilakaera

Urtea	2008	2009	2010	2011	2012
Ikuskatutako lokal kopurua	527	372	416	506	432
Gabeziak dituzten lokal-kopurua	123	96	72	79	91
1. bisitan zuzen ez zeuden lokalen %	23,3	25,8	17,3	15,6	25,8

gehienak etxebizitzetan edo establezimenduetan intsektuak identifikatzeari buruz. Azkenik, udal-zerbitzu honek hirugarrenek eskaturik hartu eta azter ditzake laginak. 2012an, era horretako 39 izan ziren, herritar eta enpresentzat, eta 245, erakunde ofizialentzat.

Ingurumena kontrolatzeko jarduera-laburpena. 2012. urtea

Lagin mota	Lagin kop.	Saiakuntza kimikoak	Saiakuntza mikrobiologikoak	Saiakuntzak guztira
Sareko ura	1.552	15.664	4.680	20.344
Igerilekuak	243	2.326	1.288	3.614
Ibaiak	24	264	72	336
Salaketak	5	40	15	55
Guztira	1.824	18.294	6.055	24.349



Osasun-zerbitzuak

Epidemiologia Zerbitzua

Zerbitzu hau zaintza eta analisi epidemiologikoez arduratzen da, bai eta osasuna sustatzeko eta bultzatzeko programak kudeatzeaz eta osasun publikoan ikerkuntza egiteaz ere.

Herritar guztien elikadura-azturak hobetze aldera eta haien jardura fisikoa aldia behin egitea bultzatze aldera, 2012an hainbat programari eman zitzaion jarraipena, hala nola Gosaldun egunero izenekoari; hau da, hiriko ikastetxeetan gosari osasungarri eta orekatuak egiten dira, dietistek-nutrizionistek zuzenduak. Lazkoan, 40 ikastetxetako (17 itundu, eta 23 publiko) Lehen Hezkuntzako 4. mailako 2.100 ikasleek parte hartu zuten.

Aurreko urteetan bezala, lehen seihilekoan, helduendako ibilketa nordikoetan hasteko saioak egin ziren, larunbat goizetan. Zehazki, 7 ibilbide desberdin egin ziren, monitore batek zuzenduak, eta, guztira, 196 lagunek parte hartu zuten. Bigarren seihilekoan, bertan behera utzi zen hiriko auzoetan ezarritako dauden atari zabaleko gimnasia-zirkuituak erabiltzea sustatzeko programa.

Martxotik ekainera, bestalde, hiriko landare-espezie nagusietako polen-mailari buruzko doako argibide-zerbitzua jarri zen indarrean, polen haiekiko sentiberak diren herritarrengan arazoak sor ditzaketelako. Zehazki, 2012an, 117 lagunek eman zuten izena alerta-zerbitzuan; beraz, guztira, 353 dira. 3.984 SMS mezu bidali zitzaizkien eta 372 e-posta.

Higiene eta desinfekzio zerbitzuak

Desinfekzio Parkea

Arratoiak hiltzeko, desinfektatzeko, intsektuak hiltzeko eta usain txarrak kentzeko lanak egiten ditu, eta udal-zerbitzuetako arropa ere garbitzen du. 2012an, 22.026 zerbitzu egin ziren, 2011n baino % 2,2 gutxiago, batez ere murriztu egin zelako ibaiertzetan arratoiak hiltzeko jarduketak. Intsektuak hiltzeko zerbitzuak, berriz, % 6,6 jaitsi ziren, 2012an;

funtsean, horrelako jarduketak Udalaren eta partikularren egoitzetan jaitsi delako.

Komun publikoak

Hirian 10 komun tradizional daude, langileak dituztenak, eta berez garbitzen diren 22 komun; horietako bi 2012an Erriberri kalean eta Gares plazan zabalduak. Komun tradizionalik erabilienak Gazteluko plazakoak dira; gero, Gurutzeko plazakoak, Sarasate pasealekukoak eta Antoniutti parkekoak. Beste muturrean, gutxien erabilitakoak parkeetan kokatutakoak dira: Munduko parkean, Media lunan eta Zitudadelan.

Desinfekzioak

Urtea	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Desalokairuak	0	0	0	0	0	0
Desinfekzioak (partikularrak)	32	25	24	20	19	16
Autoklabeak	4	3	4	14	25	26
Formaldehido-ganbera	1	1	1	2	2	3
Santo Domingoko Merkatua	53	52	52	52	52	53
Udal Zerbitzuak (bide publikoa)	2.454	2.210	2.175	2.174	2.153	2.086
Arropa-garbitzeta (zuhurtziazkoak)	13	9	18	30	61	82
Arropa-garbitzeta (udalegoitzak)	705	617	695	589	620	598
Zerbitzuak, guztira	3.262	2.917	2.969	2.881	2.932	2.864

Komun automatikoetan izan den erabilera kopurua ikusita, esan daiteke horrelako komunek harrera ona dutela herritarren artean. Zehazki, 277.615 aldiz erabili ziren, hau da, aurreko urtean baino % 8,8 aldiz gehiago.

Bainuetxea eta Antoniutti duxak

Bainu Etxea Eslava kalean dago eta egunero egiten zaio harrera duxa, bainu- edo arropa garbitzearen zerbitzua eskatzen duen jendeari. Zerbitzuak zortzi duxa-kabina ditu jendearen eskura, bai eta sei bainu-

ontzi (bi egokituak, minusbaliatuek erabil ditzaten), hiru garbigailu eta hiru lehorgailu ere.

Azken bi urtean zerbitzu kopuruan izandako jaiatsieraren ondotik, 2012an dutxa kopuruak % 8 egin zuen gora, Sanferminetan zerbitzuek % 11 gora egin zutelako. Era berean, % 92 igo zen Gizarte Ongizate Alorretik eskatutako doako dutxen kopurua.

Antoniutti parkeko komun publikoen barrutian, bestalde, 6 dutxa daude, Sanferminetan dutxa hartzea eskatzen duten jendeari zerbitzua emateko. Festetako eguraldiak eragin handia izaten du erabileran;

Dutxa-erabilera kopurua

Urtea	2008	2009	2010	2011	2012
Dutxa kopurua	7.292	8.526	7.687	7.402	7.992
Bainu kopurua	15	5	12	3	7
Dutxak eta bainuak, guztira	7.307	8.531	7.699	7.405	7.999

2012an, erabilerak % 1,1 egin zuen behera, 2011koaren aldean. Guztira, 1.386 dutxa izan ziren.

Xiringen bilketa

Zerbitzuak bide publikoan abandonatuta dauden xiringak jasotzea eta ezabatzea du eginkizun, hondakin sanitarioek ustekabea gaixotasunak transmititzeko aukerarik izan ez dadin. Astean bitan egiten dira xiringak jasotzeko ibilbideak, eta xiringa gehien Donibanen, Sanduzelain eta Alde Zaharrean aurkitu dira. 2012an, xiringa gutxiago jaso zen, % 9,05 gutxiago, hain zuzen: 231, eta aurreko urtean, aldiz, 254.

